

Bertoko frutarbolak



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Urtarriletik martxora bitarte luzatzen da frutarbolak lurrian landatzeko aroa. Landaketa egin aurretik, ordea, udazkena da mintegikoekin mintzatu, katalogoak aztertu eta eskariak egiteko garaia. Planifikazio hori are garrantzitsuagoa da bertako fruta barietateak landatu nahi dituzten etxeetan. Izan ere, aspaldiko fruta barietateak birsortzen dituzten mintegiak gutxi direnez, azkar bukatzen da urteko landare ekoizpena. Beraz, zenbat eta beranduago eskatu, orduan eta zailagoa izaten da aukeratutako barietateak lortzea.

Hiri inguruan eskuragarri diren frutarbolak mintegi handietatik ekarritakoak eta supermerkatuetan ezagunen diren frutenak dira: hala nola Fuji, Gala, Granny, Golden edo Reineta sagarretan; Ercolini, Conferencia eta Blanquilla madarietan; Burlat eta Pikota gerezietan, eta abar.

Aitzitik, eraldaketa urbanistiko handirik gabeko herrietako bide eta soroetan gure aurrekoek txertatu eta landaturiko fruta zuhaitzak ikusiko ditugu erraz. Ematen duen frutaren barietatea ez da dendetan topatzen, ez zaio publizitate-

Balorizazio eskasaren ondorioz, belaunaldi berrietan zabaldua da zuhaitz zaharrak moztu eta frutarbol komertzialak jartzeko tentazioa

rik egiten. Horregatik, gehienetan ez dakigu zein den bere izena, ez eta nondik iritsi zen ere. Balorizazio eskas horren ondorioz, belaunaldi berrietan zabaldua da zuhaitz zaharrak moztu eta frutarbol komertzialak jartzeko tentazioa.

Lehengo fruta zuhaitzen aniztasuna, ordea, dendan topatzen diren hamar barietaterena baino askoz zabalagoa da, eta horrek egiten ditu interesgarri norbere helburuetara egokitutako zuhaitz motak topatzeko.

Altuagoak direnez, erabilgarri izan daitezke azpian animaliak ibiliko diren sailetarako, erabili daitezke hirietako

lorategietarako, modan jartzen ari diren baso jangarrietarako, eskola inguru zein norbere etxerako.

Gurean, bada industria eta autobide handien erdian irauten duen baso txiki bat. Bertan egiten dugu etxerako su egurra, hortik atera ditugu etxerako habe eta zutabeak, eta bertan landatu ditugu basoko muga zein zabalguneeetan egokitu daitezkeen arbola berriak, egur zein frutarakoak. Horretarako, ohikoak baino altuagoak diren frutarbolak bilatu ditugu, zenbait gaixotasuni erresistenteago direnak, bizi luzeagoa dutenak edo egokituago daudenak. Gure etxekoentzat plazera da barietateak ezagutzea, landatzea, paseatzea, txori-intsektuak ikustea eta tokia zaintzea.

Zuhaitz horiek iraun dezaten, beharrezkoa da horien zaintzan eta mantentzean dabilen elkarrekin laguntzea, eta interesgarri zaizkigun zuhaitzei erabilgarritasuna bilatzea. Horrek egingo baitu bideragarri Euskal Herrian bertoko frutarbolak sortuko dituzten mintegiak izatea, horretan aritu nahi duten nekazariak bizitzea, eta jendeari arbolak eskuragarri egitea. Ezagutu, maitatu eta gozatu ditza-gun gehiago. ●

bertako
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

-rekin BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus